

Idazti santuak

Ik. Idazteunak(k); Liburu santuak.

Idealismoa

1. Idealismo filosofikoa: munduko zer ikuskor eta materialen aurretik edo gainetik ideien (Ideiaren) mundu izpirituala dela irakasten duen filosofia, batzutan materia- ren mundua ideien mundura bihurtzeraino eta horretan suntsitzeraino. Errealismoari ere kontrajartzen zaio ordua.

Materialismoak erlijioari egiten dion kritika horixe da: idealista izatea.

2. Idealismo praktikoa: Nork bere bizitza jabetuki burutzeko eta zentzuzkoa egiteko, aurretik, hori gidatu eta zuzenduko duen asmo, amespuru eta goiburuaeren bat jartzeko duen joera.

Idealismo absolutua

G.W.F. Hegel-en eta horren jarraitzaileen filosofi sistemaren izena; horren arabera, diren guztiak Ideiaren agerkariak dira.

Filosofia horrek eragin garrantzizkoa eduki du ondoko erlijioaren filosofian; baita teologian ere.

Ik. Teismoa.

Ideologia

Erlijioaren kritika marxistak, ideologiatzat edo klase gainartzaileek ezarritako egoera eta harreman sozialen zuribidetzat jotzen du erlijioa, eta horregatik ideologiarekin berdintzen.

Ik. Kritika (Erlijioarena); Arrozketak; Marxismoa.

Idia

Kultura askotan agertzen da idia, artezko irudikapenetan; eta erlijiozko *oparitarako animalia izan da sarritan. *Lanaren, batez ere nekazaritzaren, eta egonariaren sinboloa da funtsean idia. Alde horretatik, *zezenaren kontrakoa da.

Jesusen jaiotzaren irudikapenetan astoarekin batera agertu ohi da idia, jaioberria gurtzen. S. Luka ebanjelariaren ezaugarria da idia, bere ebanjelioa Zakaria apaizaren oparigintza kontatuz hasten duelako.

Idolatria

Sin.: Idolo-gurtza; Sasi-jainkokeria

Idoloei zuzenduriko gurtza: hau da,

Jainkoren edo Absolutuaren irudiren bati zuzendurikoa, irudia jainkoa bera bailitzan.

Ik. Idoloa; Sasi-erlijioa.

Idoloa

Grezierazko eidolos (irudia) hitzetik dator; Jainkoarekin berdintzen den gauza edo izakiren baten imajina da, jainko bera bailitzan jauresten dena, edo jainkozkotzat hartuz, giza atxekimendu absolutua eskaintzen diotena.

Gauza materialak aparte (*harriak, *zuhaitzak, *mendiak, *iturriak), zenbait indar edo botere-mota ere (dirua, agintea, sexua) idolotzat har daiteke.

Profeta hebraitarrek gogor salatu eta gaitzetsi zuten idolo-gurtza. Kristauak *idolatria paganoaren kontra altxa ziren. Mahomet Arabiako *politeismo idolatriazkoaren aurka borrokatu zen.

Ik. Paganismoa; Erlijioakara.

Idolo-gurtza

Ik. Idolatria.

Ifernua

Sin.: Suleizea

Kristau-kontzeptua da, gaiztoen heriotzondoko zigor behin-betikoa adierazten duena. Antzinako hebraitarrek bazuten hildakoen egonleku ilun eta tristeren baten ideia, xeol (sheol) izendatzen zutena, baina gaiztoentzako zenik argitu gabe. Antzeko kontzeptua adierazten zuten greziarrek *hades hitzaren bidez. Biblian zehar, berriz, erbestaldi ondoko juduen *gehenna kontzeptuak bideratzen du geroko kristauen ifernuaren irakatsia.

Kristau-tradizioan *leize edo osin sakan, suz betearen gisa irudikatu izan dute ifernua, non bekatari galduak etengabe eta betirako kixkaltzen iraungo bait dute, inoiz suntsitu gabe. Euskal autore zaharrek, hain zuzen, sarritan suleize soilik erabili izan dute ifernua adierazteko.

Idazleek, artistek eta sermolariek irudimen handiz berotu eta beldurtu izan dituzte herriaren buruak ifernuko sua, garrasiak, oinazeak eta neke-penak azalduz. Gaur egun horrelako irudikapenei ihes egiten diete; eta bizileku edo egonleku espaziala baino gehiago bekatari hildakoaren egoera gisa ulertzen dute ifernua: zeruaren ukapen eta gabezia gisa, alegia.

Dena dela, Elizak, bereziki Eliza Katolikoak, tinko eusten dio ifernuaren iraka-

Ifernuetara jaistea

tsiari, bekatu larrritan hildakoentzako be-
tirako zigor gisa ulertuz.

Gaur egungo teologiaren arabera, ifernua ez da bekataria hiltzean duen Jainkoarekiko ukoaren edo bartzetzearen iraupena besterik: Jainkoagandiko aldentze horretan finkatu egiten du damutzen ez den bekataria herioztak. Gizon-emakumeen borondatea errespetatu besterik ez du egiter, orduan, Jainkoak ifernura galtzean; hori, berriz, giza bizi-tzaren eta helburuaren erabateko porrotatzat jotzen du, Jainkoa delako gizakiaren azken helburua. Inolako esperantzarik gabeko egoera da ifernua, Dante-ren Divina Comedia-ko hitz haien arabera: "Utz ezazue edozein es-
perantza honera sartzen zaretenek".

Beste hainbat erlijiotan ere (antzinako Egiptoan, Japonian, Txinan, hinduismoan, budismoan) nabaria da gaizto hildakoen oina-
ze-lekuen sinestea, gehiago ala gutxiago zehaztuta; antzinako kosmologiaren arabera, lurpean aurkitzen dira haiek. Dena dela, ez dute betikotzat hartzen kondenatuen egoera hori, eta antz handiagoa du Eliza Katolikoaren *garbitokiak irakatsiarekin. Islamismo ortodoxoak betirako ifernua ezartzen die politeistei; baina ez Jainko bakarra sinetsi duten bekatariei: horientzat iragankorra izango omen da oinaze-lekua. Parsismoan, judaismoan eta islamismoan bezala, kristautasunean ere Jainkoaren judizio eta kondenazioari baldintzaturik dago gaiztoaren ifernua.

Ik. Bekatua; Galmena; Hilan judizioa; Betiko heriotza.

Paulo Agirrebaltzategi

Ifernuetara jaistea

Horrela adierazten da kristau-sineskizun bat, zera uste duena: Kristo hil ondoren, baina berpiztu aurretik, hildako zintzoen atsedan-lekura joan zela, haiei handik ja-reitera eta berak gurutzean lortutako *sal-bamena aldarrikatzera eta eramatera.

Ik. Bitarteko egoera.

Igandea

Sin.: Domeka; Jaunaren eguna

Kristautasunak zabaldu duen asteroko jaieguna. Dies dominica (Jaunaren eguna) deitu zuten kristuek, Kristoren piztueraren oroimenez hasi bait ziren egun hori (juduen *larunbataren ordezkoa) ospatzen. Hortik da-
tor seguruenik egun horren bizkaierazko izena: domeka (dominica).

Bi eginbidek ezaugarritzen du kristauen igandea: atsedena hartzea, lanari dagokio-
nez, eta *eukaristiaren ospakuntzan parte

hartzea. Kristau-konfesio guztiek ospatzen dute igandea edo domeka. Konstantino Handiak ezarri zuen legez igandea gorde beharra. Tradizio katolikoak, lan gehienak alde bate-
ra uzteaz gain, egun alaitzat hartu izan du igandea, olgeta neurritsuak onartuz; tradi-
zio protestanteak, berriz, eta bereziki *pu-
ritanismo ingelesak, seriotasun-kutsua eman dio igandeari eta zorrotzagoa izan da, batez ere olgeta debekatzean. Gaur gaintuta dago seriotasun hertsia hori; kristau-elkarte txi-
kiren batzuk bakarrik eusten diote gogor horrelako ohiturari.

Juduek zapatua edo larunbata egiten dute jai astero; musulmanek, berriz, ostirala edo barikua.

Ik. Jai egiteko eguna; Elizaren aginduak.

Igarlea

Ik. Profeta, 1.

Igaroaldiko erritoak

Ik. Iragapen-erritoak.

Igar(tza)pena

Orokorki hartuta, ezkutuan dagoen zer-
baiti antzematea da. Bereziki erabiltzen da etorkizuneko gertakariaren bat asmatzea adie-
razteko, batez ere igarle edo igartzapenen egilearen forman, euskal kristau-autore as-
kotxok Bibliako *profetak adierazteko erabi-
li bait du hitz hori. Igarlearen lanbidea igarletza da.

Erliziozko alorrean, naturaz gaineko gertakaria da igarpena, igarlea naturaz-
gaindiko laguntzaz baliatzen delako, ezku-
tua edo etorkizuna asmatzeko. Laguntza hori eskuratzeko edo nolabait ordezkatzeko, ma-
giako baliabideak, erabiltzen badira *az-
tiapena (edo aztikeria) esaten da, bien arteko aldea mugikorra bada ere.

Igarlearen eta *aztiaren arteko aldea, zenbait autoreren ustez, *erlijioaren eta *magiaren artean dagoena da, baita horien arteko ukitua eta gurutzapena ere. Genesikoa 44,5eko testuak Jose *patriarkaren igarle-
-dohaina aipatzen du; horretarako edalontzi edo antuxin batez baliatzen omen zen; lanbi-
de hori igarketak egitea (Kerexeta) nahiz aztiapenak egitea (Olabide) itzultzen dute euskal autoreek.

Hala ere, aztiapenaren alderdi gordina adierazteko *aztikeria erabili ohi da euska-
raz.

Ik. Aztiapena; Profeta; Profetatza; Profe-
zia.